

8-Funtsezko jarduerak:

- **Ekoizpena**: Jone (enpresako bazkideetako bat) monitoreen kontratazioaz eta jardueren antolakuntzaz arduratuko da, 30 monitore gutxi gora behera kontratatzea erabaki du, monitore bakoitzak 10 umeeko talde batez arduratuko da. Egunen jardueren ordutegia antolatuko du, talde bakoitzak ordutegi ezberdin bat izango du, baina adibidez jateko eta ohera joateko guztiek ordutegi berdina izango dute. Aukeratutako jarduerak hauek izan daitezke, kirol jarduerak, adibidez igeriketa, futbola, surfa...; edo giza jarduerak, adibidez, talde dinamikak, komunikazioa eta lankidetzaz sustatzeko jokoak, elkartasun jarduerak, bateratuagoak sentitzeko edo hausnarketa taldeak.
- **Arazoak konpontzea**: Gift (enpresako bigarren sozioa) bezeroen arazoak konpontzeaz arduratuko da, web-gunean eskegita dagoen zenbakiaren bidez deituko dute eta berak argituko ditu dauzkaten zalantzak edo arazoak.
- **Plataforma-sarea**: Helen (enpresako hirugarren sozioa) web-guneak ondo funtzionatzeko duela, inolako akatsik ez dagoela eta informazio eguneratuta egoteaz arduratuko da.

Ekoizpenari garrantzia handia ematen diogu gure kalitatean izugarrizko eragina duelako eta hori delako besteengandik bereizten gaituena.